




W
AIA



JAGOBA MANTEROLA, XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

MAIALEN LUJANBIO

*“Bertsolaritzarekiko
harremana egunean-
egunean biziko dut”*

PAULO JOXE ARISTORENA LASA

J oan den udazken ondarrean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalerako txartela lortu zuenez gero, 21 urteko hernaniar bertsolaria, Maialen Lujanbio Zugasti, zen baino ere ezagunagoa egin da. Haurra zenean lotu zitzaion bertsoari. Urumea Ikastolan eman zituen lehen urratsak eta, ondoren, Hernaniko Bertso Eskolan. Hastapenetan, Jon Eizmendi eta Juanjo Uria izan zituen laguntzaile eta, betiere, talde lanean aritu izan diren lagunak. Bestelako ikasketeei dagokienez, Agustin Iturriaga Institutuan egin zuen batxilergoa eta, orain, EHUn ari da Arte Ederrak ikasketen laugarren urtea burutzen. Aldi berean, bertsolaritza gogoz landu du. 1990ean Hernaniko taldeak irabazi zuen Eskolarteko Txapelketa. Bera ere partaide zen. Geroztik, 1991 eta 1994ean jantzi zuen txapela. 1995ean Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen. Eta, 1997.eko abenduan heldu zen Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa Nagusiko finalera.

Donostiako Anoeta Belodromoan, egun puntako diren beste zazpi bertsolari lagunekin, bapatean eta bapateko ihardunerako, hantxe, milaka ikusle-entzuleren aurrean ikusi zuen bere burua. Afizioz hasitakoa ia ofizio bihurtu bide zaionean, ekinaren ekinez landutako bertsolari

izateari, komunikabideek bereziki, emakume izatearen balizko “merezimendua” itsasi nahi izan zioten. Bera, aldiz, sexu bereizkeriaren gainetik eta bertso munduaren ezagutza sakonetik, zer den eta nor den hartatik, alegia bertsolari soil izatetik, gaur egun bertsolaritzak dituen gazi-gezez mintzo da.

Bertsolari zein den galderari denboran zehar erantzun ezberdin asko eman izan zaizkio: “aitun zaharrak txapelarekin”, “juglares sabelotodo”, “herriaren pozak eta minak abesten dituen”, “rústicos iletrados” eta abar luze bat. Maialen Lujanbioarentzat zein da edota zer da bertsolaria?

Mila erantzun izan ditzake galdera horrek. Alde batetik, izan liteke bere burua bertsolaritzat daukana eta kito. Bestela, bertsolari zein den esateko garaian listoi bat jartzen ari gara, hortik beherakoak, ez; hortik gorakoak, bai... Iruditzen zait ez dela egokia zein den eta zein ez bertsolari klasifikazio hori egitea. Nor berak ikusiko du bere burua zertzat daukan, ez? Behar bada, garai batean nik ere emango nukeen aitona txapeldun batzuen definizioa, baina gaur egun bertsolarien abanikoa oso zabala da. Alde horretatik, pozgarria da guztiontzat balio duen estereotipo bat eman ezina, bertsolaritzaren aberastasunaren seinale bait da.

Bestalde, bertsolaria dela esango nuke, ahozkotasanaren barnean, arau txiki batzurekin, errima, neurria eta abarrekin, jolasten dena, hizkuntzarekin komunikatzeko jolasean ari dena.

Zu, noiz eta nola hasi zinen jolas horretan?

Orain plazatan gabiltzan gazte gehienok bezala, ni ere ikastolan hasi nintzen. Uste dut hamaika-hamabi urtekin hasi nintzela. Gelako lagun batzu aritzen ginen elkarri bertsoen bidez zirika, Iñaki Lete, Anjel Telleria eta hiruok. Bertsoa zer zen ez genekien oso ongi, baina bertso zaharrak ikasi izanaz edo, zerbait bageneukan buruan eta bertso antzeko batzu moldatzen genituen. Gure zaletasunaz oharitu ziren irakasleak eta Jon Eizmendirekin hasi ginen ikastolako bertso eskolan. Gero, ikastoletan genbiltzanak Hernaniko Bertso Eskolan bildu ginenean, Juanjo Uriarekin jarraitu genuen. Talde lana oso garrantzikoa zen eta elkarrekin aritzen ginen Unai Agirre, Gorka Tolosa, Iñaki Zelaia, Jexux Mari Irazu,... Bestalde, Eskolarteko Txapelketetan eman genituen lehen pausoak jende aurrean. Ni txapelketan, lehenengoz, hamabi urterekin atera nintzen. Eta hortik, plazan kantatzera pasa ginen batzu.

Jakingo duzu gaur egun ikastola eta bertso eskoletako gaztetxo askok Maialen Lujanbio eredu bezala jarria daukala. Zuk, aipatu duzun hasera haietan, eredurik bazenuen?

Jainkotzen eta miresten nuen eredu garbirik ez nuen, ez. Behar bada, izatekotan, Txirrita izan

ziteken, bertsolari zaharretan bera ezagutzen nuelako gehien. Adibidez, bertso zaharrak, Txirritarenak baino ez nituen ezagutu denbora piska bat pasa zen arte.

Eta, zergatik eredu Txirrita?

Ba... herritarra zelako, ni bezala Lujanbio zelako eta arrazoi bi horiengatik askotan entzun nuelako bere izena. Adibidez, Pello Errota niri ez zitzaidan hain gertuko egiten, baina Txirrita berriz ezagutzen nuen

pertsonai bat zen, herritarra, bertsolaria,... eta etxean entzundako erreferentziak eta ikastolan ikasitako bertso zahar gehienak bereak ziren. Beraz, nire aldetik ez zen halako aukeraketarik egon, orduan bera bait zen ezagutzen nuen ia bakarra.

Eta mende honen hastapeneko Lujanbio, Txirritaren, eta mende amaierako Lujanbio, Maialenen artean zer uste duzu legokela antzeko eta zer ez?

Ezinezkoa da hori parekatzea eta niretzako, gainera, lotsagarria. Jende askok egiten du hitz joku hori, beste Lujanbio bat, hernaniarra, bertsolaria,... Uste dut ez dagoela alderatzerik, inondik inora, garaia ezberdina delako eta bertsokera bera ere bai. Hala ere,

Txirritarengandik gauza asko jaso nahiko nituzke: umorea, hizkuntza bera erabiltzeko grazia eta errekurtsioak, zirikarako ahalmen hori. Niri Txirrita beti inpresionantea iruditzen zait. Gaur egun ere, bere zenbait bertso diren aktualak, ikusi besterik ez dago. Bai, oso pertsonai kurioa iruditzen zait. Bera bizi zen garaian bizi izanik, baserri munduko gizona izanik, ikustekoa da zenbateko informazio eta jakituri zeukan.



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

1991-06-08

Gipuzkoako eskolarteko XI. Txapelketan Maialen Lujanbio txapeldun geratu zen. Ondoan Estitxu Arozena eta Andoni Larrañaga.

Txirritaren garaian bertsolaria "jaio" egiten zela zioten. Gaur berriz, "egin" egiten omen da. Honetan, 80. hamarkadan hasi zen bertso eskolen mugimenduak, gero eta eragin haundiagoa izan du. Zer erakarpen ekarri dio bertsolaritzari?

Bertsotan ikasteko metodo bat sortzea baliagarri izan zen, mamu zaharrak uxatzeko eta puristenei bertsolaritza ere ikasi liteken zerbaite dela erakusteko. Jende gaztea bertsozaletzeko, bertso munduarekin harreman bat izateko, euskararen irakaspenerako baliabide bezala, ..., alegia, bertso eskolen arrazoi bakarra ez dela bertsolariak egitea. Bertso eskoletan bertsoarekin gozatzen ikasten da, nor berak egindakoekin eta besteei entzundakoekin. Anoetako finalean kantatuko ez baduzu ere berdin da, argi izanez gero lagun arteko afaritan ere gozatu litekela.

Hernaniko Bertso Eskola aski ezaguna da bertsolarien artean. 1981ean hasi zen Xabier Amurizaren ikastaro batekin eta hortik pasa dira Anatx, Joxe Fermin Argiñarena, Jon Eizmendi, Jokin Soroazabal, Joxe Manuel Oiartzabal, Jose Luis Urdangarin, Iñaki Zelaia, Unai Agirre, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu, zu zeu ere, eta beste dozenaka batzu. Gaur egun zer dinamika darama Euskal Herrian lehenengotakoa den Bertso Eskola honek?

Oso momentu onean dago. Gu sartu ginenean sumatu nuen bertsotarako ez ezik lagunak zentzurik zabalenean egiten ginela, han lagunak bilatzen genituela. Gure artean oso giro ona dagoelako, gustora zabiltzan jendearekin lanerako gogoia izaten da, eta denak ere oso identifikatuta gaude bertso eskolaren ideia horrekin eta, azken boladan, izugarrizko dinamika dauka bertso eskolak. Ekintza asko antolatu ditugu, adibidez bertsoa kaleratzearen helburuarekin jendearengana hurbildu gara, badakigu jendea ez dela guregana etorriko eta. Gaur egun Hernaniko taberna batzuetan jendea bertsotan entzutea ez da arritzekoa. Bestalde, "Bertso Lata" deitzen dugun bertso astea antolatu dugu bigarren aldiz ekitaldi ezberdinekin. Herrian giro hori bizitzea lortzen ari gara, gainera oso zirkulo arrotzak lirateketan eta ez bertsozale estereotipikoen ingurune litzateken horretan bakarrik.

Zenbat bertsozale, zenbat talde zabiltzate bertso eskolan?

Taldeak nahiko ezberdinak dira eta inplikazio maila ere ezberdina da. Batzu bagara hemendik kanpo ikasten ari garenak eta nolabaiteko kontaktua mantentzen dugunak asteburutan etorriaz eta noizbehinkako lantxoak eginez. Aldi berean, bada bapateko talde bat, astero bapatekotasuna lantzeko elkartzen dena. Gero badira ikastoletako haurren taldeak. Denera jende mordo bat gara, ehun inguru.

Bestalde, inguruko bertso eskolekin lotura badaukagu.



Zure bertsolari izatean, urtetako eta taldeko lan horrek baino oihartzun haundiagoa izan du, batez ere komunikabideen eraginez, emakumezkoa izateak. Eskolarteko txapelketen hastapenetan Arantzazu Loidirekin edota Nafarroako txapela jantzi zuenean Estitxu Arozenarekin antzekorik gertatu zen. Batetik, zer iritzi daukazu, emakume

izateagatik, eman den irudi horretaz? Eta,

bestetik, zuk bertsolari izatea, zure kasuan emakume izanik noski, nola bizitzen duzu?

Azkenetik hasita, hasera batean Eskolarteko Txapelketetan, oraindik nahiko neska gutxi genbiltzanean, jendea ohitu gabe zegoenean neskak kantari ikusten eta bertsolariak berak ohituta ez zeudenean, neurri batean biolentoxeagoa zen. Antzematen nuen, nire inguruko bertsolari gazteek, gure adineko beste mutil gazte batzuekin oso harreman normala zeukatela; baina, nirekin zerbatxobait "mozten" ziren. Harremana distantzagoa zen, nahiz gerora, lehen aipatu dudana bezala, Hernaniko Bertso Eskolako lagunei esker, elkar ezagutzen joan ginelako eta bertsolariak gehiago ezagutzen dituzulako ere, harremana asko naturaldu zen. Hori, beraz, oso haserako kontua izan zen. Gainera, betidanik, ikastolan eta bertso eskolan neska-mutilak elkarrekin ibili izan garenez nahiko egoera naturala izan da elkarrekin bertsotan aritzea ere. Orduan, nik emakume izatea bertsolaritzan oso era naturalean bizi dut gaur egun. Garai batean, agian, piska bat nekosogoa izan zen, baina badaramatzat urte batzu plazatan eta uste dut jendea ohitu dela neskak kantuan ikusten eta ohartzen da ere bertso lagunon arteko harremana oso ona dela, ongi moldatzen garela gure artean. Komunikabideen

1992-03-06

Usurbilen, Emakumeen eguna ospatzen. Inaki Zelata, Unai Agirre, Ainhoa Munitxa, Matalen Lujanbio eta Inaxio Usarralde.



XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

jarrerari dagokionez, zer esango dut? Hori komunikabideen kontua da. Denok dakigu komunikabideak zer diren eta notizia bilatzeagatik zer egiten duten eta titular potoloak zenbat gustatzen zaizkien. Orduan, ni finalera pasa nintzen momentuan banekien zer etorri zitekeen: "historiako lehen emakumea finalean eta bla, bla, bla". Alde batetik, bere neurrian, anekdota aipagarria da, baina sensazionalismo horretan erori gabe. Nire aldetik, behintzat, eman zitzaion baino era askoz ere naturalagoan bizi izan nuen finalera pasatze hori, urtean zeharreko beste saio guztiak bezala.

Beraz, garbi dago zuk zure burua nahiago duzula bertsolaritzat soilik ezagutua izan dadin, emakume bertsolari bezala baino...

Dudarik gabe, uste dut bertsotan gabiltzan neska guztion apustua hori dela. Hasera batean, antzematen genuen, plazatan neska gutxi genbiltzanean, neskak ginelako deitzen gintuztela. Kuriositate bat pizteko, nahiz jendea erakartzeko erabiliak izan gara batzutan, ia-ia zirko batean bagenbiltza bezala. Eta egia esan behar bada, hori bai nahiko frustantea eta inkomodoa zela. Pentsatu nahi dut gaur egun deitzen gaituztenean, ongi kantatzen dugulako deitzen gaituztela eta ez neskak garelako.

Aitortu behar da, ordea, modernitatearen prozesuak bertsolaritzan eragin dituen aldaketa

batzuren artean, besteak beste, lehen gizonezkoen eremua zena emakumezkoei zabaltu izatea dela. Aldaketa guzti hauek, zer onik ekarri diote bertsolartizari?

Abanikoaren zabaltze honek erakarpen onak izan ditu guztiz. Lehen bertsolari gehienak, guztiak ez esatearren, molde berekoak ziren, pentsamolde beretsukoak, bizimodu antzekoetakoak. Gaur egun, aukera askoz ere zabalagoa da; badira giro ezberdinetako bertsolari zaharrak eta gazteak, baserritarrak, kaletarrak eta, baita ere, hiritarrak. Oso pentsaera ezberdinekoak gara, oso zaletasun ezberdinak ditugu, estetikaz ere zerikusi haundirik ez dugun jendea gara. Honek aberastasun bat dakar ideia nahiz umore aldetik eta ikus-entzule berria ere erakartzen du, estilo berri horretako bertsolariekin identifikatzen delako.

Guzi honek, saioei dagokienez, aldaketarik ekarriko zuen, alegia ohizko bi, lau, sei, zortzi bertsolariko saioetatik, bertso saio antzeztuetara edo gidoi batean inguruan garatzen den horietara edota musika nahiz olerkiarekin nahasten den saioetara. Zer gogoeta sorrarazten dizu?

Garai bateko bertsoketa alde batera utzi gabe, gaur egun esplorazio bide batzu lantzen ari garela esango nuke. Betiko ereduaren arabera antolatutako jaialdiekin pixka bat asperturik gaude eta horretatik dator konbinaketa berriak egiteko



gogoa. Horrela sortu da adibidez, oso emaitza onak eman dituen, bertso eta musikaren arteko harremana: Zazpi Eskalaren bi disko, Sarasua anaia, Andoni Egañaren diskoa, herri dextentetan egin diren bertso paper musikatuak emanaldiak,... Adibidez, Jon Maia eta biok Lana eta langabeziaren inguruan izeneko bertso paper musikatuak emanaldirik izan dugu. Gainera, bertso paperentzat ere irtenbide bat izan da mugimendu berri hau. Orain arte bertso paperak ilun samar egon dira eta orain luzitzen ari da. Probatuz probatuz, ikusten ari gara zer den interesgarria, zerk eman dezaken etekina eta zerk ez.

Eta, gaiak dagokienez, aldaketarik eman al da?

Gaien aldaketa ematen ari da, baina oraindik erabat emateko dagola esango nuke. Gaiak, bertsolaritza bera bezala, zabaldu, gaurkotu, hiritartu egin dira. Bertsolarien ugaltzearekin batera gai moten ugaltzea etorri da. Estetika aldaketak, gai aldaketa ere badakar. Derrigor horrela behar du gainera, ezin bait diozu Joxe Lizaso bati eta Unai Iturriaga bati, beti gai berbera jarri.

Beraz, diozunaren arabera, estiloa gehiago aldatu da edukia baino...

Bai, gaien mundu horretan lan asko dago egiteko eta bide berriak jorratzeko. Bai gaijartzaileen aldetik, gaiak planteatzeko garaian eta bai, batez ere, bertsolarien aldetik, gai horiek garatzeko orduan.

Guk, gure errealitate bezala bizi ditugun gai asko, adibidez droga, sexualitatea, aipatu aipatzen da, baina oso betiko moldeekin, nahiko umore estandarrarekin. Puntu batetaraino iristen gara, baina ez gara guztiz bustitzen gertutik bizi ditugun gora-beherekin. Oraindik asko dago egiteko. Baina ez da erreza.

Entzulego berri bat ere erakarri omen duzue.

Bai, horrela da. Dena den, entzulegoa zerbait asentatu dela uste dut, duela urte batzuetan izandako boom hartatik eta telebistaren eraginez sortutako multzo hartatik. Moda kontua, zentzu txarrean, izan zela ere esango nuke. Lehen modakoa izan zitekeen bertsolaritza ez gustatzea, kaxeroen kontua zen, karka batzuen kontua. Gero berriz alderantziz, jende gaztea ateratzen hasi zen, jende erakargarria, estetika eta estilo berriko jendea, kaleko entzule posible horrengandik oso gertu zegoen jendea. Eta orduan, bertsolaritza modan jartzen da. Jende gazte mordo bat urbiltzen da, oholtzan ikusten duelako bere erreferentzi den adin bereko pertsona, bere tabernetan ibiltzen dena, bere musika entzuten duena. Garai batean, bertsolariak, trikitixa, folklorea... dena zaku berean sartu eta baztertzea normalagoa zen bezala, egoerak buelta ematen du eta orain "lo que se lleva" bertsoak gustatzea da. Horrek, boom bolara hartan, egundoko jende masa erakartzen zuen, Hitzetik Hartzera telebista saioarekin eta abar. Sarasuak esaten duen bezala "apar hori" piska bat

1997-01-18

Bertso Eguna
Donostian. M. Lujanbio
eta J. Elortza.



KOLDO TAPIA, XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA



Azkeneko Bertsolari
Txapelketa Nagusian

Maitalen Lujanbio izan zen finalera iritsi
zen emakume bakarra. Emakume izateaz
gain, partaide gazteena ere izan zen.

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

jaitsi eta benetako jende zaletua gelditu denean, ikusten da, hala ere, boom horrek emaitza positiboa eman duela. Azken batean, bertsolaritzarekin inolako kontakturik ez zeukan jendeak, modagatik bada ere, kontaktu bat eduki duelako. Horietako asko engantxatu egin dira eta, gaur egun, entzule asterokoak dira. Hori inportantea da, abanikoaren zabaltzea delako. Bertsolari estereotipoa zabaltzen bada, gaiak eta entzuleak ere ugaltzen dira. Dena lotua doa.

Badirudi, ordea, guztia ez dela hain zeru kolorekoa. Batetik, eta ez da gaur goizekoa, progresia espainiarraren esparruan dabilzan Mario Onaindia, Jon Juaristi... eta, bestetik, euskaltzale munduan lanean ari diren Patziku Perurena eta urte haseran sonatua egin zen Matias Mujika libelagilea, bertsolaritzarekin oso kritiko azaldu dira, baita bertsolari eta entzulegoarekin ere. Diotenez, gaitasun intelektual motzeko jendea eta oso pentsakera kontserbadoretan mugitzen zareten jendea omen zarete. Kritika horien aurrean gogoetarik egin al duzue bertsolariek?

Kritikak ez dira berriak. Batetik, eta neurri handi batean, ezjakintasunetik egindakoak dira eta, bestetik, min egin nahiean botatakoak, berdin inbidi puntu batetik sortutakoak ere. Bere baitatik funtzionatzen ari den ekimen bat, inongo lotura eta agintaririk gabe, osasuntsu dagoena eta jendearekin eta herriarekin komunikatzea lortzen duela ikusteak, sor dezake inbidi pixka bat. Bestalde, ez dut uste kontserbatzaileak garenik. Ez dut esango modernoak garenik, baino... Euki ditzakegu gure puntu kontserbatzaileak, baina gaur egun irekita gaude, aurrera pausoak eman nahiean,... Hau ikusten ez duenak, ikusi nahi ez duelako! Guk ez dugu inor engantxatu arazi nahi. Guk, gure ihardun naturala egin behar dugu eta hori apreziatzen dakiena urbilduko da. Printzipioz ezezkoan dagoenak, ezjakintasunetik bada ere, ez du sekula bertsolaritza apreziatuko. Patziku Perurenaren kritikak oso interesanteak dira eta euki dezakete bere arrazoi partea. Baina zer dioen aztertzen denean, konturatzen zara duela 30 urteko bertsolaritzari kritika egiten ari zaiola. Gaurko bertsolaritzatik urrun dabilen jendea da eta kritika garai batekoari begira egiten dute. Amatiñok ere kritika zorrotzak egin ditu, min egitera joan da gainera, baina duela 20 urte bertso saio batera azaldu gabe. Hauekin hika-mikan sartzea ia alferrik da. Eta uste dut, gaur egun bertsolaritzak zer arrakasta duen ikusita, erantzuna emana dagoela.

Aipatzen da bertsolaritzaren arrakasta horretan telebistak zerikusirik izan duela. Bertsolarien artean, izen piska bat lortu duzuenon artean behintzat, gogoeta gai izan da, ea zer erakarpen on eta ez hain on izan duen horrek. Nola ikusten duzu, zuk?

Lehen esan dudan bezala, telebistak boom bat eta moda bat sortu zuen. Modak beti dira arriskutsuak, neurri handi batean, hutsak direlako. Baina jende mordo bat erakarri zuen, bertsolaritzari bere prestigioa eman zion nolabait, lehenagotik ere lortzen ari zen prestigioa, bestalde. Erakarrirako jende guzti horretatik, orain batzu berezko zaleak izango dira eta ez telebista bidez egindako bertsozaleak bakarrik, hau da, bertso saio dexente entzun dituen eta gustoko duena mundu hori. Ez da gutxi Euskal Herrian jende talde handi bat erakartzea lortu izana. Bestalde, bertsolaritza hain sustatua ez dagoen Nafarroako, Arabako eta Iparraldeko eskualde askotara iristea ere ekarri zuen. Telebistaz bazen ere, igandero bertso saio bat ikusten zuten eta ez da gutxi. Bere arriskua izan zuen, bertsolaritza espektakulu kutsua hartzen hasi zelako. Bertso entzulea ere ez zen betiko bertsozalea, espektakulua nahi zuena baizik. Izan ere telebistaz jasotzen zituzten bi astetako bertso onenak, eta saio bat entzutera joaten zirenean, hori bera espero zuten. Jende kopuru hori hezi egin behar dugu denborarekin.

Bertsolariengan ere halako antsietate bat sortuko zuen, jendeak telebistaren erreferentzia bertso gero eta hobeagoak eskatzen zituenez...

Esan bezala, jendea gaizki ohitzen da telebistaz bertso onenak entzuten dituenean, gero bertso saio batera joan eta hori espero izaten bait du. Telebistan futboleko golik onenak botatzea bezala da. Noski, jende hori hezi egin behar da, ohartarazi behar zaio maila bereko bertsoak beti ezin direla bota. Bestalde, telebistak sortzen ari zen elite bat gehiago indartu zuen. Alde didaktikoa berandu samar sartu zitzaion Hitzetik Hortzera programari eta promoziorako eduki zezakean bultzada hori ez zen asko aprobetxatu.

Horrekin lotuta, batzutan kritikarik egin izan da komunikabideek, nolabait, areagotu egin dutela bertsolaritzak azken urtetan zuen giputz-zentrismorako joera. Nafarroan eta Iparraldean hori kondena moduko bat bezala bizi izan da. Beste gai batzuetarako eskatzen den diskriminazio positiborik ez al da eskatuko

bertsolarien edota Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearen aldetik?

Uste dut Elkarteak horretan eragin gutxi daukala. Bestalde, askotan aipatu den kontua den arren, nik behintzat diskriminazio positiboarekin duda haundiak ditut. Saiatu gintezke saioetan nafarrak edota iparraldekoak sartzen baina, hori zenbaiteraino da laguntzea edo errukiz bezala jokatzeko? Naturala ez den zerbait, zergatik egin? Emakumeen kasua gauza bera da, "emakume gutxi dabilta eta dabiltzanak sartu egingo ditugu". Ni ez nintzateke ongi sentituko neska naizelako edo nafarra naizelako sartuko banindute. Itxurakerian erortzeko arriskua dago. Dena den, baieztapenik ez dut egiten, duda bat daukat eta ez dakit zein den biderik egokiena.

Bestelako diskriminazioekin jarraituz, zuen adierazpen askatasunari mugarik jarri izan zaionaren usterik bai al duzue?

Nik uste dut baietz, gehienbat komunikabidetan. Plazan inork ez digu esaten zer kantatu behar dugun eta zer ez, eta are gutxiago zer ez dezakegun kantatu. Plazatan era bat libre zara, zuk ikusten dituzu baldintzak, zuk ikusten dituzu momentuaren konnotazioak eta herri horren egoera eta dena dela; eta zuk neurtzen duzu zer kantatu dezakezun, inoren ahotik agindurik etorri gabe. Etorri liteken zentsura posible bakarra da, zuk kantatu dituzun bertso horiek aireratzeko garaian. Nik halako herritan kantatzen ditudan bertsoak, han dagoenak entzun ditu, gero hori zabaltzea beste kontu bat da. Garai batean, Hitzetik Hortzera programan sumatzen zen bertso konprometitu samarrak, politikarekin zerikusia daukatenak azken batean, ez zituztela botatzen eta zenbait bertsolari nahiko moskeatuta ibili zen; behar bada, umore gaietan kantatzen zutenean beti ateratzen zirelako telebistan, baina gero gai konprometituei buruz ari zirenean... horiek ez zizkieten botatzen. Omisio hori ez da zentsura zuzena, baina bada modu bateko zentsura.

Askok oraindik ez du ahaztu, zentsuraren antologiaren historian geldituko den pasadizu batean gertuko protagonista izan zirela.

Bai, "Debaldeko Festa" telebista saioan gertatu zen. Unai Iturriaga, Igor Elortza, Irazu eta ni geunden. Guk kontrainformatibo bat bezala planteatu genuen gure saioa. Planteamendua izan zen normalean entzuten ez diren notiziak ematea. Aurrena saiotxo bat egin genuen kultura, kirola eta eguraldia aitzakitza hartu eta ironia piska batez gaiak tratatuz. Bigarren saio batean, Irazuk, ez



probokazio bezala, gaia planteatzeko modu bezala, gaia hitzez jarri beharrean pintada bat egin zuen: "Kalea geurea da. Ertzainik ez". Bide eman nahi zuen okupe, gaztetxei eta gisako gaiei buruz hitzegiteko. ETBn probokazio bezala hartu zuten eta moztu egin zuten. Zuzeneko programa bat mozteko nabarmenkeri bat izan zen ETBren aldetik.

Baina bestetik ere, batzuei nabarmenkeria iruditzen zaie bertsolaritza Ezker Abertzalearen ildo estuan ibiltzea. Zentzu horretan, bertsozale zenbaitek bere kritika publikoki azaldu du. Zer da zuzena eta zer ez zurrumurru honen inguruan?

Ez dakit zenbaiteraino den zuzena izatea edo ez. Zenbaitek erremina dauka. Alde batetik, bertsolariak Ezker Abertzaleetik gertu dauden edo ez oso eztabaidagarria da. Denetik dago. Behar bada, gehiago egongo da Ezker Abertzaleetik gertu. Ba... adierazgarria da, aldi berean, herri ekimenetan lanean ari den jendea Ezker Abertzale ingurukoa izatea, ezta? Horretaz aparte, bertso munduan bada denetik. Hori denok dakigun gauza da. Bestalde, bertsolari bat aske da bere ideiak adierazteko nahi duen eran, bere ideiekin eta bere ideologiarekin bizi delako. Beraz, nork leporatu behar dio inori ezer horregatik? Kritika hori egiten dutenak, niri dextenteko grazia egiten didate, zeren, tolerantzia hainbeste hitzegiten den garai honetan, ez dira



MILAKA JARRAITZALE BILDU
ZEN ANOETAKO
BELODROMOAN ANDONI
EGANAK IRABAZI ZUEN
FINALA IKUSTEKO.

XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

kapaz besteren iritziak entzuteko. Bertso saio batera joan eta gustuko ez duten ideia bat entzun orduko, betiko kritika hori luzatzen dute, alegia, bertsolari denak Ezker Abertzaletik gertu daudela. Bertsolari bat libre da bere ideiak kantatzeko, beste era batera pentsatzen duen bat libre den bezala. Bertsolaritza komunikazio bide alternatibo bat bada ere eta egunkari zein telebistan hainbeste eta hainbeste ikusten ditugun berriakigoal plazatan berriz esatea ez da egokiena. Eta, agian, plazak aprobetxatu behar dira komunikazio bide alternatibo bezala, beste komunikabidetan entzuten ez ditugunak aldarrikatzeko eta esateko. Nik uste dut hori zilegi dela. Bakoitzak ikusi behar du zer aipatu nahi duen, bere barrena zenbateraino dagoen mindua edo etsita, zer esateko gogoia eta beharra sentitzen duen. Hortik, kritika zabalik ezin zaie egin bertsolari guziei edota Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteari. Norberak kantatzen duena erabaki indibiduala da eta denok behar dugu libre geure ideiak plazaratzeko.

Kritikaren oinarrian dagoena, zera da, euskal gizartearen gehiengoak azken urtetan salatzen ari den bortxakeri nahiz giza eskubideen oinperatzearen aurrean, bertsolarien hitz askorik ez dela entzun.

Gai horiek aipatzera gero eta gehiago ausartzen ari gara ere, salatzeke edo babesteko, hala irudituz gero.

Gogoratzen naiz lazo urdinen garaian, puri-purian atera zen gaia bertsotan. Postura publikoak ere egon dira lazo urdinen kanpainen bertsolari batzuen izen-abizenekin. Neurri batean baldintzatzen duena da bertsolaritza jende askorengana iristen den komunikazio bide bat dela, eta nire ustez zilegi da hainbestetan aipatzen ez diren kontu batzu, hemen aukera izan eta aipatzea. Bestela, inon ere ez lirateke adituko eta hori, bai dela egia.

Gaurko euskal gizarteari, bertsolaritzak zer du on eskeintzeko?

Gaur egungo ihardueratan bertsolaritza da, politikoki hitzeginik, bere publikoan aniztasun gehiena lortzen duena. Andoni Egañak, belodromoa betetzen zuten hamar mila pertsonen aurrean, txapela jantzi ziotenean abestu zuen bertsoan zioen "batasun honek beharko luke euskaldungoaren dohai". Kulturgintza aldetik, uste dut Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearedugarri izaten ari dela, hutsaren trukeko lana da gehienbat, zaletasunagatik egindako lana eta, denak, oso identifikatuta gauden elkarte bat daukagu. Hain era ezberdineko jendeon artean komunikazio gaitasuna lortzea gauza ona da.

Eta, bukatzeko Maialen, gure herritar Joxe Manuel Lujanbiok, Txirritak, bere itzala luzea izango zelakoaren kontzientziak "nere aipamenak izango dira beste larogei urtian" profezia bota zuen. Eta, betetzen ari da. Maialen Lujanbiok zer profezia bota dezake bertsolari bezala izan uste duen etorkizunaz?

Ja, ja, ja! Nik profeziarik ez dut botako, hainbestera ez naiz ausartzen. Orain zer izan uste dudana agian esan dezaket. Alde batetik, ez dut nahi pretensio haundirik eduki. Bertsolaritzarekin daukadan harreman hau era naturalean bizi nahi dut. Eta, aspertzen naizenean uzteko gogoia badaukat ez dadila traumatikoa izan, ez niretzat eta ez inorentzat. Orain neska gutxi gaudela eta ez dakit zer izen lortu duzula eta, badirudi zenbait arrituko litzatekela burutik bertsolaritza uztea pasatzen bazait. Epe luzerako planak ez zaizkit batere gustatzen eta bertsolaritzarekiko harremana, orain arte bezala, egunean-egunean biziko dut. Gustora nagoen neurrian segiko dut eta aspertzen naizenean utzi edo, behar bada, beste lantegi batzutura pasako naiz bertso munduan bertan. Garai batean ez nuen nire burua 21 urterekin horrela ikusiko eta orain ez dakit 30 urterekin non eta nola izango naizen. Beraz, epe luzera begiratu gabe, ahal den naturalen segiko dut gustora nagoen artean. Gero, gerokoak! ♦